

SAN MIGELEN IRUDIA GIPUZKOAKO BARROKOAN

IGNACIO CENDOYA ECHANIZ

San Migel Arkaingerua dugu aingeruen printzea, Luzifer-en garailea, elizaren babesgarri eta tentaldi eta heriotzaren orduan deitua izaten dena (1). Arkaingerua denez, Rafael eta Gabriel bezala, beste aingeruen gainetik dago, azken finean arkaingeru archangelus-etik bait dator eta hau αρχαγγελο s-etik (αρχο s, buruzagi eta αγγελο s, aingeru). Betidanik izan du garrantzia Eliza guztian: gogoratu besterik ez daukagu bera izan zela Frantziako Britainian eraiki zen Mont Saint Michel-ko Abatetxearen arrazoi nagusia, Auranches-eko apezpi-kuari azaldu bait zitzaion.

Gipuzkoan ere, eliz eta ermita askoko titularea da; aipatzekoak dira Aizarnababal, Angiozar, Garagartza, Laurgain, Aginaga, Altzaga, Ezkioga, Gaintza, Idiazabal, Irura, Lazkao, Mutiloa, Oñati eta Urnieta elizei dagokienez; ermitak berriz, badira deitura horrelakoak Tolosan, Urzuriagan, Azpeitin, Bergaran, Elgoibarren, Zumaian, Garatzan, Errezilen, Eskoriatzan, Legazpin, Gabirin, Motrikon, Zizurkilen eta Oñatin (2). Beraz, gure asmoa da Gipuzkoako elizetan ditugun zenbait irudi —barrokoak kasu honetan— oinarri bezala hartuz saildu honen ikonografia markatzea seinalatutako garaian.

Lehen, eta Aro Berriari murriztuz, Errenazimenduan aurkitzen dugu lehen garai bat irudi oso idealizatuarekin, denbora hartako kanonak jarraituz. Adibide modu aipa ditzakegu Oñatiko Unibertsitateko Kaperan edo Altzagako parrokiaren ditugun irudiak. Erromanismoan egiten direnak berriz, garaiko estetika jarraitzen dute: aurpegi beltzurituak, ezpain estutuak, joera heroikoa, tentsio muskularra, handikotasuna, bolumen eta masa handiak. Erromanismoaren hedatzearen arrazoa bere izaera ofizialean baldin badago ere, Tren-

(1) San Migelari buruz, arteari dagokionez, informazioa leku askotan topa dezakegu; nolana ere aipatuko genituzke REAU, Louis., *Iconographie de L'Art Chretien*, Paris, 1955-1959. FERRANDO ROIG, Juan., *Iconografía de los Santos*, Bartzelona, 1950. MALE, Emile, *L'art religieux après de Concile de Trento*, Paris 1958; *L'art religieux del XVII siècle*, Paris, 1951. MARTÍN GONZALEZ, Juan José, *Escultura barroca castellana*, I tomoa, 28.orria. Madril 1959; eta beste hainbat eta hainbat.

(2) IRIGOYEN, D. de., *Ermitas e iglesias de Guipúzcoa (Ensayo de catalogación)* "Anuario de Eusko-Folklore" 1934.

toko ideialen exponente gisa egiten duena (3) ez zuen gutxi ikusi beharra izango gai honen eboluzioan protestantismoarekiko garaipena azaltzeko modua.

Barrokoan iadanik, San Migel Arkaingeruaren irudiak hedatzen jarraitzen dute. Lehenetako lana Gaintzako elizan dagoen erretaula nagusiaren irudi titularra da. 1626ko Martxoan kontratatua bere eraikuntza Diego de Mayoragatik, Nuestra Señora eta San Pedroren irudiaz gain —kolateraletan jarriak izan behar zutenak— (4) zeren otsailaren 17an emandako lizentziak jartzen zuen bezala:

“La yglesia parrochial esta acabada de paredes y pagada su cantidad y probeyda de ornamentos y calices y solo falta de acer el Retablo del altar mayor y para ello se les ofrece buena ocassion de maestro escultor perito en el arte, quien se ofrece acerla con mucha comodidad como ba aciendo otras en diferentes yglesias de la probincia” (5)

Eraikuntza epea hamabi urtetakoa zen, eta denbora epe hau oso luzea denez, maisuak lan gehiegi izan behar zuen seguraski, lizentziak dioen bezala. Arazo asko planteatu zituen lan honek; honela, 1653an Diego de Mayorak eta Juan de Ayerdik, erretabloaren egileak —lehen eskultorea eta bigarrena arkitekto eta mihiztatzailea—, auzitara eramango dituzte elizaren patrioiak (6). Hasiera batetan 39.016 errealetan tasatua izan bazen ere, parrokiak auto bat lortzen du eta honen ondorioz, lana berriz erretasatua izan zen. Hortarako, elizak Martin de Echeverria, arkitektoa eta Iruñako biztanlea, eta Juan Imberto, eskultorea eta Estellako biztanlea, izendatu zituen; bitartean, Mayorak eta Ayerdik José de Angulo, arkitektoa eta eskultorea eta Gasteizko biztanlea, izendatuko dute. Erretasazioa 33.600 errealetan egin zen —hori da artisen eliza auzitara eramate honen arrazoia, ondoriorik izan ez bazuten ere— eta oraindik 1723an Mayoraren oinordekoak diru kopuru horren ordainketa guztia eskatzen badute ere (7), elizak, bere aldetik, behar zuen baino gehiago ere ordaindu duela dio (8).

Diego de Mayorak egiten duen San Migel irudia (Lehen Lamina) Gregorio Fernández-en lanak hartzen ditu eredu bezala, bere beste lanetan gerta ohi denez (9). Ambrosio de Bengoechea-ren jarraitzaile honek (10), Fernández-ek Gipuzkoan egindako lanak ikusteko gai izango zen seguraski, Eibar edo ziura-

(3) CAMON AZNAR, J., *El estilo trentino* “Revista de Ideas Estéticas” 12.zbk 1945.

(4) GIPUZKOAKO ARTXIBATEGI OROKORRA. TOLOSA. (G.A.O.T.) 2.387 leg. 61-64b. orriak

(5) G.A.O.T. 2.387 leg. 58.orr.

(6) ARCHIVO DIOCESANO DE PAMPLONA. (A.D.P.) “Ollo-C/801-N.º 5” 85 folio.

(7) A.D.P. “Tudela” .-C/1714-N.º 27”; 81 folio.

(8) G.A.O.T. 2.978 leg., 62-62b. orr.

(9) GARCIA GAINZA, María Concepción. *La influencia de Gregorio Fernández en la escultura navarra y vascongada* “B.S.A.A.V.” 1972, 371tik-389raino orr.

(10) ARRAZOLA ECHEVERRIA, María Asunción. *El Renacimiento en Guipúzcoa* Donosti, 2.edizioa. II Tomoa, 227 orr.



1. Lehen Lamina. Diego de Mayora. 1626-1638. Gaintza.

go Arantzazun, Seguratik hurbil dagoelako —Seguran bizi bait zen Mayora— García Gañzak zioen bezala, edo agian, Gasteizen, bertan egin bait zuen Valladolid-eko maisuak San Miguel elizako erretaula nagusia (11).

Ikonografia aldetik, irudia lantza eta beharbada anakronikoa den elementu batekin, balantzak, aurkezten da. Balantza horiek arkaingeruaren arima pisaketaren funtzioarekin zerikusia du —honen aurretikoa arte egipziarrak du Anubisen irudietan—; bitartean deabrua, San Migelen oinetara, balantza horiek kentzeko ahaleginak egiten ditu. Estilistikoki, autorea bere obran oso zakarra azaltzen zaigu, trauskila Valladolid-eko eredu hoiak kopiatzeko orduan.

1677an, Juan Bautista de Saguesek, maisu arkitektoa eta Tolosako biztanlea, Zaldibiko kolateralen eginkizuna bere eskuetan hartzen du, bere eraikuntza Pedro de Latijerari, maisu arkitektoa hau ere, uzten badio ere; honek, urte eta erdian eta 449 dukatuen truke egitera obligatzen da (12). Lantegiak 15 dukatu erabiltzen ditu Juan de Ursularre Echeverriak hortarako eginik zuen traza ordaintzeko. 1679an izango da lanaren azterketa, Domingo de Viquendik elizaren izenean eta Felipe de Leizak, Latijeraren izenean egina, guztiz ondo aurkitzen dutelarik. 1762 arte ez da izango erreztatze prozesua, Luis de Fancuevak eta Jose Agustin de Condek egingo dutena; San José eta Nuestra Señora de Aranzazuren margoak ez ezik, Nuestra Señora del Rosario eta San Migel Arkaingeruaren irudiak ere polikromatu beharko dituzte 6.000 errearen truke (13).

Beste batean Bernabé Corderoren ofiziale izan zenak (14) erabili zuen eskultorearen izena ezezaguna baldin bazaigu ere, esan beharra dago bere produkzioek ez dutela gehiegizko kalitatea. Arkaingerua eskubiko eskuan ezpata duelarik azaltzen zaigu; ezkerrean berriz, eskutua darama bertan inskripzio bat latinez idatzia duelarik, “Quis sicut Deus”, San Migelen izenaren esan nahia azalduz, “Nork Jainkoa bezala” (2.lamina).

Ikonografikoki, oraindik lehen garaian kokatzen da, lehenengo irudiarekin desberdintasun batzuk baditu ere. Mugimendua guztiz zabaltzeke dago oraindik, bada ere gehiegizko gogortasun bat, oihalaren tratamenduan, bere posizioa guztiz aurretik ikusia azaltzen zaigularik, oin biak deabruaren gainean jarriak.

Bere kalitate estilistikoari buruz hitz egiterakoan, ezberdintasun bat ikusten dugu aurpegiaren eta gorputzaren beste zatien tratamenduan; lehena ondo egina badago ere, gainerantzean badira irregulartasun batzuk azken emaitza masaltzen dituztenak eta ondorioz, suposa dezakegu eskultorearen lana irudiarren burura murriztu zela gainerakoa lantegikoak eginez.

(11) MARTIN GONZALEZ, J.J., *Escultura barroca castellana I* tomoa, 223tik-226raino orr. Madril, 1959. ANDRES ORDAX, Salvador., *Gregorio Fernández en Alava*, Gazteiz 1976.

(12) G.A.O.T. 2.932. leg.

(13) G.A.O.T. 3.050. leg., 82-85b orr.

(14) INSAUSTI, Sebastián. *Artistas en Tolosa. Bernabé Cordero y Juan de Bazcardo* “B.R.S.V.A.P.” 318 orr. 1959.



2. Lamina. 1677-1679. Zaldibia.

Lazkaoko Santa Anako Komentuan, bere kolateraletako baten errematean, San Migel Arkaingeruaren irudi berri bat aurkitzen dugu, oraingoan Nafarroa delarik bere jatorria. 1714an, Iruñako Apezpikuaren ordezkariak, adierazi zionean komentua apaindura beharra, apezpikuak Don José de Soraburu-rena joko du. José de Soraburu hau genuen “Oidor del Tribunal de la Cámara de Comptos del reino de Navarra y Tesorero General de la Guerra de Navarra y Guipúzcoa” eta bere arreba —Sor Juana Antonia de Jesús María— komentua abadesa (15).

(15) “Testamento de Don José de Soraburu” ARCHIVO DE PROTOCOLOS NOTARIALES DE PAMPLONA. Francisco de Arratia. 1716.

Erretablo nagusia eta bi kolateralen egilea bere arkitekturari dagokionez, Fermín de Larrainzar izango da, maisu zurgin eta arkitektoa, nork bere lana dela eta 900 zilarrezko dukat jasoko dituen (16), beharrezko gehigarri polikromatua Francisco de Aguirrek egingo duelarik (17).

Irudi hau (3.Lamina) 1714 eta 1716 artean egina izango zen ez baldin badakigu ere berriro egilearen izena. Bigarren momentu ikonografiko baten aurkitzen da, iadanik guztiz definitua eta XVIII. mende osoan jarraituko dena, gogortasun han Idiagoa lortuko duelarik. Kalitate oneko lana, hala eta guztiz ere badu nolabaiteko arkaismoa batez ere tolestura eta ilearen tratamenduan, bereiztasun batzuk dituelarik eskutuaren ezizatea bezala, zetroa jarriz bere



3. Lamina. 1714-1716. Lazkao.

(16) “Carta de pago fin y quitto...” ARCHIVO DE PROTOCOLOS NOTARIALES DE PAMPLONA. Fermín Juárez. 1718.

(17) ARCHIVO DE PROTOCOLOS NOTARIALES DE PAMPLONA: Fermín Juárez. 1719.

ordez. Bestalde, aipatzekoa da deabruaren figurazioa, bere aurpegia aurrez aurre azaltzen zaigularik, bere besoan sostengatua, ongia gaizkiaren garaile irudiaz gain —manikeismoaren kontzeptua—, gaizkiaren itsutasuna erakutsi nahian.

Idiazabalen aurkitzen dugu saindu honen irudi ikusgarrietakoa, bertako elizako titularra. Erretablo nagusia egiteko gestioak 1740ko urtean hasi ziren (18) Jose de Iparraguirrek egindako traza batekin (19) 1741ko urtean kapitulaziotan traza hau Miguel de Irazustak egin beharko duela eskatzen bada (20). Kapitulazio hauek Iparraguirrekin egiten dira, nor Miguel de Irazustaren traza jarraitu beharko du. Baldintza hauek 1742ko Uztailan zabalduak izango dira (21) eta Abuztuaren ezabatutak (22) hurrengo egunean, Abuztuaren 14an, azken eskritura sinatuz (23). Iparraguirre behartzen zen lan hori egitera 1743ko Ekainetik 1746ra 40.750 errealean truke. Hitzarmen horren baldintz bat eta kasu honetan gehien bat axola zaiguna zera zen:

“Que toda la escultura que contiene dha traza aya de ejecutar de la misma mano o estudio que hiciese trabajar el dho D. mig. de Irazusta para el retablo de la Ig.^a Parroq.^l de la dha v.^a de Segura, quien se halla encargado de su construcción sea en Madrid, en Segura, o en otra parte: esto es excluso el bulto del dho S.^l Sn Miguel”

Honela, Segurako erretabloaren eskultura Luis Salvador Carmonaren obra bazen ere (24), Jose Antonio de Iparraguirrek, Juan Bautista de Mendizabalekin egingo du kontratu bat, azken honek Idiazabalko erretablo nagusiarentzako behar diren eskulturak egin zitzaizkion 6.300 errealean truke, epea 1744ko Irailatik Iparraguirrek erretabloa entregatu arte (25). Badugu baita ere azken ordainketaren eskutitza, eskultoreak emandakoa 1740ko Martxoan (26). Lehenik 1745ko Ekainean erretabloa entregatua izan zen (27), Iparraguirre hilik zelarik iadanik. Aztertzaileak Ignacio de Ibero, elizaren izenean, eta Diego Martínez de Arze —Seguran lanean ari zena—, Iparraguirreren alargunaren

(18) Arkitekturari eta urreztatuari dagokienez datu guztiak argitaratuak daude liburu honetan: IPARRAGUIRRE, Ignacio. *Cinco villas del Alto Goyerri. Cegama-Cerain-Mutiloa-Idiazabal-Ormaiztegui*, 71 eta 101 orr. Donosti, 1971.

(19) G.A.O.T. 2.226. leg. 1740. 60. orr.

(20) G.A.O.T. 2.226. leg. 1741. 55. orr.

(21) G.A.O.T. 2.226. leg. 1742. 30. orr.

(22) G.A.O.T. 2.226. leg. 1742. 32. orr.

(23) G.A.O.T. 2.226. leg. 1742. 34. orr.

(24) GARCIA GAINZA, María Concepción. *Dos grandes conjuntos del Barroco en Guipúzcoa. Nuevas obras de Luis Salvador Carmona*. “Revista de la Universidad Complutense. Homenaje a Gómez Moreno”. 81tik-110ra orr. 1973.

(25) ARTXIBATEGI HISTORIKO PROBINTZIALA. OÑATI (A.H.P.O) 2.692. leg. 1744.142-143 orr. Aipatu ZORROZUA SANTISTEBAN, J. eta CENDOYA ECHANIZ, I. *Precisiones sobre los Mendizabal, escultores guipuzcoanos del siglo XVIII. Nuevas obras en Vizcaya y Guipúzcoa*. “Kobie” (prentsan).

(26) A.H.P.O. 2.695. leg. 1747. 42-43 orr.

(27) G.A.O.T. 2.227. leg. 1745. 54-55 orr.

izenean, izan ziren eta beraien ustez, erretabloa eta bere eskulturak guztiz ondo eginak zeuden. Urreztadurak urte batzu gehiago itxaron beharra izango zuen, 1767an sinatzen baida obligazio eskritura José de Quintanarekin, nor bere lana egin beharko du 1768ko Martxoan edo Apirilari hasi eta 1770ko Ekainean bukatu, 38.000 errealekin truke (28) azterketa azken urte honetan egiten delarik (29) eta lau urte geroago, Quintanak azken ordainketa eskutitza ematen duelarik (30).

Mendizabalek itxura oneko lana egiten badu ere, bere eskulturak Carmonarenak eredu bezala bait ditu, inola ere ezin dugu sinetsi gai izango zenik San Migelen irudi hau egiteko (4.Lamina) zeren ezaugarri estilistikoak desberdintasun handiak erakusten dizkigu. Hau dela eta, garbi dago elizako arduradunek bere lehen aipatutako gogoak beteak ikusi zituztela eta modu honetan, irudi honen eginkizuna bere aldetik artekatu zutela.



4. Lamina. Luis Salvador Carmona. 1743-1746. Idiazábal.

(28) G.A.O.T. 2.235. leg. 1767. 60-63 orr.

(29) G.A.O.T. 2.236. leg. 1770. 35. orr.

(30) G.A.O.T. 2.244. leg. 1774. 37. orr.

Irudi honek, zerikusi haundia du arkaingeruaren beste irudi onenetako batekin, Gipuzkoari dagokionez, Bergarako Santa Marinako elizaren kolateral baten dagoena eta Garcia Gainzak Luis Salvador Carmonari atribuitu ziona (31). Gure ustez Idiazabalko irudi hau Carmonarena da eta ziur gara garai honetako lan onenetakoa dugula, beti Gipuzkoari mugatuz, izugarritzko kalitatezko lana eta egitura finekoa, Carmonak berak ez baldin bazuen egin ere, bere lantegian egingo zena.

1769ko Ekainean José de Oliden eta José Antonio de Berasateguik bi kolateral eta erretablo nagusiko errematea egitera behartzen dira Ataunen, 24.000 errealean truke, lana 1771ko Abuztuaren hamabostean entregatzekotan (32) Francisco de Azurmendiren traza jarraituz (33) Azurmendi hau Donostiko biztanlea eta maisu arkitekto eta eskultorea zelarik. Kalitateari buruz zalantzak zituztela eta, patrioiek, eta bere kokapena baino lehenago, azterketa bat eskatuko dute, 1771ko Uztailan egina (34). 1772ko Urtarrilan Francisco de Azurmendik bi kolateral horietako eskulturak eta erretablo nagusiko errematea aztertuko ditu, denak Francisco de Echeverriak egindako lanak (35) “escultor santero”, Azpeitiko herrikoa. Azurmendik esango duenez,

“...aunque no se hallan executadas con toda perfeccion, sin embargo el declarante las tiene por vastantemente decentes para el corto precio en que parece las ha executado el dho Fran.” de Echeverría, por la cantidad de ciento y noventa y ocho pesos segun el declarante tiene entendido y se ha informado de dhos Señores patronos”

Azurmendiren eritzia zuzena iruditzen zaigu, Echeverriak San Migel Arkaingeruaren irudia begiratzen badugu (5.Lamina). Irudi honetan, barrokiaren dagokionez goren puntara iritsi gara, tela kolatuak eta tolesturen oparotasunari begiratzen badiogu. Bitxia azaltzen zaigu kate horren erabilpena, berarekin eusten diolarik arkaingeruak deabruari, eta orain arte ikusi ditugun irudietan inoiz azaldu ez dena.

Estilistikoki, eta oraintxe esan dugun bezala, irudi honen egitura nahiko txarra da. Egindako aurpegiak zerikusi haundirik ez du saildu honek eskatzen duen edertasunarekin, eta beharbada gehiegizko tela enkolatu horien bidez, eskultorearen asmoa bere gaitasun ezeza ezkatzea zen.

(31) GARCIA GAINZA, M.^a Concepción. *Dos grandes conjuntos...* 101, 102 orr. Hemen egiten dugun atribuzioa, Idiazabalko irudiarri dagokionez, onartu egin du Garcia Gainzak. Ikusi GARCIA GAINZA, M.C. *El escultor Luis Salvador Carmona*. Iruña, 1990. 57. orr.

(32) G.A.O.T. 1.926. leg. 1769. 70: orr.

(33) “Prevenzionen que yo Fran.^{co} de Asurmendi pongo para la execucion de los añadim.^{tos} que e dispuesto para el retablo mayor y sus dos colaterales de la parroquial de la villa de Ataun, segun el diseño que para el efecto remitto a encargo de los S.^{tes} vicario y capitulares de dha villa”
G.A.O.T. 1.926. leg. 1769. 68. orr.

(34) G.A.O.T. 1.928. leg. 1771. 217. orr.

(35) G.A.O.T. 1.929. leg. 1772. 1-3b.orr.



5. Lamina. Francisco de Echeverria. 1769-1771. Ataun.

Neoklasikora hurbiltzen ari garenean, Francisco de Azurmendi berak Mutiloako erretablo nagusia egitera behartzen da, berak egindako traza bat jarraituz, eta 1771an hasiera emanez 1773ko Abenduaren 21ean bukatzeko, 30.814 erreale jasoko dituelarik (36).

Geroago, kolateralak berritzera behartuko da (37), egindako denaren azterketa 1775ko Urrian Manuel Ignacio de Muruak egingo duelarik (38). Estofatua eta urreztadura, Nuestra Señora de la Concepción eta Arkaingeruari dagokienez, Francisco de Vidaola, parrokuaren debozioagatik ordaindua izango da (39).

(36) G.A.O.T. 3.017. leg. 1771. 303-308b. orr.

(37) A.H.P.O. 2.711. leg. 1773. 124-125b orr.

(38) A.H.P.O. 2.712. leg. 1775. 50-53 orr.

(39) DONOSTIKO ARTXIBATEGI DIOZESIARRA. Mutiloako Kontu liburuak (1704-1883) 240b., 241 orr.



6. Lamina. Francisco de Azurmendi. 1771-1773. Mutiloa.

Berriro ere, kalitate kaxkarreko lan batekin topo egiten dugu, Ataungoa baino hobea bada ere. Mugimenduak jarraitzen badu ere, Neoklasikoko baretasunaren lehenengo itxurak azaltzen ari zaizkigu; lehenengo lanetan baino soiltasun haundiagoa ikusten da. Arkaingerua, ohizko ezpata eta eskutuarekin agertzen da, oraingoan bere begirada deabruarenari zuzendua doala, eta azken honek, bere ezkerreko eskua jasotzen du datorkion kolpea geratzeko keinua eginez. Hau dugu 2.mementu honetako azken irudietakoa; momentu hau deitu dezakegu “haizerauntsia”. Hemendik aurrera girotzen hasiko da hurbil dagoen Neoklasikoko estetikarekin.